

ALKATETZAK 2019KO URTARRILAREN 14AN EMANDAKO EBAZ-PENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 29 ETXEBIZITZA ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA.

AURREKARIAK

Udalbatzak 2018ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera eman zion (lehen fasea). Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2018ko ekainaren 1ean.

Oinarrien laugarren atalean **2018ko abenduaren 3ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarritzko baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, Alkatetzak 2018ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez onartuak eta baztertutak izan diren behin behineko zerrendak osatu ziren kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsi ziren, eta hamar egun balioduneko epealdia eman zen erreklamazioak aurkezteko.

Jendaurreko epealdi honetan lau reklamazio-idatzi aurkeztu dira. Horiek Estrategia eta Hirigintza Batzordean baloratu dira eta Alkatetza honek 2019ko urtarrilaren 11n ebaztu ditu.

Erreklamazioak ebatzita, dagokigun deialdiaren 6. artikulua jasotakoaren arabera eta bertan jasotako edukiarekin, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak erakutsiko dira Azpeitiko udaletxeko iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Honekin batera zozketaren eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), Alkatetza honek **ERABAKI DU**:

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertutak izan diren behin betiko zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

Zozketaren datuak modu orokorrean argitaratuko dira Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus.

Ebazpen honen aurka honako errekursoak jarri ahal izango dira:

- Administrazioarekiko auzi errekurtoa Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

- Berraztertze errekurtoa (aukerakoa) udaletxean, lehen aipatutako errekurtoa jarri aurretik, hilabete bateko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azpeitian, 2019ko urtarrilaren 14an
ALKATEA,

Fede eman dut
IDAZKARIA,